

12. zkia. 1999ko urtarrila

Egoeraren berri jakin behar da. Hornitu beharra dago. Joxemiel Larrabeiti

h a u

h a u

B

erriro gurekin! Marraskiloa hator,  
hator doinua hartuta gurera buelta-  
tu zen. "Satorra eta (asmatu), lurpe-  
an hobeto"-ko garaia bukatu da.  
Hau Pittu Hau, orain bai, treguan.  
Beste presoak noizko gurekin?



## Ongi etorri, marraskiloa!

**H**iru hilabete ekialde urrunean bahitua egon ostean —Sanghai inguruan antza—, gure artera itzuli da gure gomaespumaz egindako marraskiloa.

Ondo merezitako Omenaldi burutugena, Euskal Herriko bertsolariarik onenekin—Iturriaga, Mañukorta eta Amuriza—, txistulariekin, dantzariekin eta abar.

Ongi Etorriaren ostean marrazki-  
loarekin hitz egiteko aukera eduki  
genuen eta zera adierazi zigun:

“Pizti batek egindako zulo baten  
barruan eduki naute, eskerrak nire gai-



nean eramaten dudala etxea. Oso hitzkuntza bitxian berba egiten zuten, adibidez “txakurra korrika dator” esan beharrean “txakula kolika dator!” esaten bait zuten”.

Hitz horiek sortutako berotasunaren ostean Hau Pittu Hau kide batzuk satorrak eta berdez jantzita dihoazten beste pizti batzuk lurperatzeko aldarrikatzen zuten. Horiekin batera Elefantearen askatasunaren aldeko

ohiua entzun ahal izan ziren.

Bukatzeko, eta txantxak apur bat aldera utziz, gogoratu beharra daukagu haragiz eta ez gomaespumaz egindak dauden bahituak. Beraien sufrimendua benetazkoa da eta espero dugu, marrazkiloarekin egin dugun moduan, laster baten beraiek ere bere herrian, bertsolarien aurrean, lore sorta bat eskuan, gu guztion omenaldia jasotzen egotea.



Eguzkiko bihotz apurtuak, Satorrakeko bahitzaileak, HPHko sasibertsolariak, eta Lizarran sines dezagun... Hor Dago!koak!!!



**Santo Tomas egunean gure konpartsak 6 txandalari jarri zituen lanean. Gure argazkilariak itsusienak atera beharra ere!**

## Santo Tomas eguna

**G**oizean merkatura jeitzi baina ezin izan genuen ohiko kokagunean jarri BBK-k beretzako hartu nahi izan zuelako gure tokia eta Udaletxeak bere eskuak "garbitu" ondoren konpartsei San Nikolas elizaren ondoan kokatzea beste erremediorik ez zitzaigun gelditu.

Bazkarira joan zirenak ondo bazkalduko zutelakoan gaude, gero arratsaldean haiek bait zeramaten joergarako gogo eta jarrera nabarmena; instrumenturik gabe eta hala ta guztiz zarata ateratzen zutela.

Arratsaldeko bostak aldera alkatu ginen Alde Zaharreko Errondabide tabernan ekitalditxoari hasiera emateko.

Bertan geunden bai Eguzkizaleak, Satorrak, Askapeña zein Hau Pittu Hauko konpartseroak bertso-kalejira bat egiteko aitzakiaz, barre batzuk botatzeko asmoetan eta batez ere DOHAINIK zen sagardoaz mozkortu nahiean. Jator, zuzen eta farregarri ibili ziren bi bertsolariak Iurgi eta Morok momentuan asmatu eta jarritako gaien inguruan baina pena izan Satorraken konpartsero bat megafonia jostailutzat harturik eskuak geldi ezin izateak. Ume hauek!!

Ari zaizuen kide hau exerantz abiatu zenean beste batzuk mozkor erdiaz gelditu ziren parrandan hasitakoa bukatzeko asmoetan.

# Perestroyka sindromea

**G**lasnot -gardentasuna-. Hori da Hau Pittu Haun zabaldu nahi dugun ildoa.

Desagertutako Sobiet Batasunean Gorbachov -vodka izugarri igo izana inork ez dio barkatzen- presidente ohiak egin zuen bezala gure pean diren komunikabideetan konpartsa-  
ren gako ezberdinez gardentasun osoz arituko gara -Hau Sekretu Hau honen bidez-. Hasteko, batzarreetan berba egin denari buruz berria ematen eta erabakitakoa jasotzen.

**Ez eskertu, holakoak gara.**


**Abenduaren 19ko batzarra.  
Morga taberna. Arratsaldeko 8ak.**

• **Altzaporrutik deitu ziguten** aurreko egunean jaietako trastu guztiak -panelak, listoiak, sukaldeko tresna elektrikoak...- mugitzeko, lekua behar zuten eta. Bestela kaleratuko zituztelako ultimatuma beteko zutela.

Lonja propioa behar dugula argi geratu zen baina ez erosi ala alokairuan hartu behariko den. Dena den luze begiratu beharko litza-teke Bilbo osoan zer edo zer merkea topatze-ko -ura, leku handia, elektrizitatea, zamalanak egiteko lekua eduki beharko luke-.

Epe motzean, eta Askapeñak bere lonja utziko duela konfirmatzen bada hori behin behineko aukera izan daiteke.

Astelehen 21eko goizean Altzaporrura joa-



teko ausartak -seku-  
lako bronka jasot-  
zera joango zire-  
nak-: Moro, Peru  
eta Ainara.

• **Santo Tomas.**

Koordinadoratik  
berandu deitu ziguten  
istilua egon delako.

Pasa den urtean  
Santiago Plaza  
euskal txoko  
gisa mantenduz  
Arriaga konkis-  
tatu genuen.

Aurten  
Udaletxearen  
Kulturak  
BBKren

atzean izku-  
tatu da -beti  
BBK erabaki  
duela esan  
dute-. BBK-k  
Pub ibiltaria ber-  
tan jarri eta

Koordinadorari ego-  
tea debekatu dio.

Horren aurrean txos-  
na San Nikolas eliza  
aurrean jarriko da.

3 orduko txan-

da daukagu eta bi pertsona egon behar  
dira. Zatitzea erabakitzen da orduko  
txandak egiten. Txandalariak: Patri,  
Iurgi, Iñigo, Unai eta Xabi, besteak  
beste.

Bazkarirako txartelak eskatzeko aukera  
dago. 5 doan dira -Konpartsak derrigo-  
rrez erosi behar ditu-. Gehiago eskatze-  
kotan joandako artean ordainduko litza-



**Boborregitxu batek  
haien txandalariak  
aukeratzeko  
nola egiten duten  
azaldu zigan**

teke. Bost baino ez dira eskatzen.

Bertso kalejira Satorrak -Marras-  
kiloa bueltatu ondoan hirukira sartu  
dira eta jada laukia gara-, Askapeña,  
Eguzkizaleak eta laurok antolatuta  
Errondabidetik aterako da 5:30etan.

• **Bai Euskarari.** Kontseiluak  
eskatuta, Koordinadorak  
kalejira antolatu du San  
Mameseraino. Guztiok  
kamisetagaz 26an  
4etan Arriagan.

Arratsaldean, eki-  
taldia bukatu eta  
gero 20 pertsona  
behar dira San  
Mames garbitze-  
ko. 17 kide  
apuntatzen dira.

• **Ihauteriak.**

Data otsaila-  
ren 14a da.

Ikusitako  
pasa den  
urteko lan  
eskerga eta aurten  
jendea asterketetan  
ibiliko dela karroza-  
rik ez egitea eraba-  
kitzen dugu.

Botatzen dira gai bat-  
zuk mozorroak lantzeko baina ez da  
konkretatzen ezer.

Hurrengo bilera mozorroena lant-  
zeko: abenduaren 26an, goizeko 12etan  
Morgan.

• **Besterik:** Xabik ESAITek Santo Tomas  
egunean Burtsan egingo duen agerraldi-  
ra gonbidatzen gaitu.



**Pasa den ihauterietako surrealismoa ezin gaindituz,  
lehenengo aldiz mozorro ulerterrezak jantziko ditugu**

**Abenduaren 26ko batzarra.  
Morga taberna. Goizeko 12ak**

• **Ihauterietako mozorroa:** aipatzen diren gaiak dira: euskararen unibertsoa, Bai euskarari, Marraskiloak, Mari eta euskal mitologia, unibertsitatea, xakea, euskal selekzioak. Azkenean, euskal selekzioen a aukeratzen dugu. Ideia da kirol ezberdinak –futbol topikoa deuseztatzen– agertzea selekzio bakoitzeko kamisetagaz eta zer edo zer farregarria-ekin. Benetazko uniformeen diseinua-

selekziorik ez egotekotan guk asmatuko genuke. La casa del deporte delakoan eskatuko ditugu –euskal federazio ia guztiak hantxe baitaude–.

Pentsatu genuen 20-30 pertsonak batuko ditugula aurren –22 pasa den urtean– eta ekin genion mozorro batzuk zehazteari. Ondoko orrian daukazuna da, beraz, HPH-k duen zerrenda ofiziala.

Mozorroak lantzeko, urtarrilaren 16an –zapatua– arratsaldeko 6:30etan, pisuan (Dendarikale 9, 1.goa) geratuak gara.

# Hau Sekretu Hau

Mozorroa	Azalpenak eta Materiala	Nor
Selekzio burua	Euskal Herria kartela darama, armarría eta ikurriña. Trajea, korbata eta kapela pijoagaz	libre dago
Medikua	Karritoa darama, musika eta sagardoa. Mediku bata	Peru
Pilotaria (pala)	Pilotariz jantzita. Pala erraldoia (Kartoia eta egurragaz)	Sonia C
Pilotaria (Xistera)	Pilotariz jantzita. Xistera erraldoia (Kartoia eta egurragaz)	Aitziber A
Pilotaria (esku)	Pilotariz jantzita. Esku erraldoia (Alanbre eta gomaespumagaz)	Bero M
Surflaria	Neoprenoz jantzita. Surf taula erraldoia (kartoia eta egurragaz)	Aitor E
Surflaria	Neoprenoz jantzita. Surf taula erraldoia (kartoia eta egurragaz)	Inma G
Halterofiliaria	Elastikoa eta pesa (2 bolena) erraldoia (goma espuma eta egurragaz)	libre dago
Arraunlaria	Uniformea eta Piragua (2 arraunlarietzat bat) (egurra, goma espuma eta oihala)	Jimmy
Arraunlaria	Uniformea eta Piragua (2 arraunlarietzat bat) (egurra, goma espuma eta oihala)	Maitte C
Pertigalaria	Uniformea eta pertiga luze-luzea (egurragaz)	libre dago
Diskolaria	Ez da disk-jockey. Diskoak botatzen dituen haizik. Uniformea eta Kartoizko diskoa	libre dago
Jabalinalaria	Uniformea eta Jabalina edo basurdea, aukeran (lehena egurragaz, 2. gomaespumagaz)	Jon
Hipikalaria	Jockey mozorroa eta txikitako zaldia (badakizu erratza eta egurrezko burua)	Iñigo
Txirrundularia	Mailota (ofiziala izateak ez du erosi behar dela esan nahi) eta txirrundula (faltsua gure?)	libre dago
Esgriminalaria	Buzo txuria, ezpata luzea (alambregaz egin daiteke) eta etxeko Koladore haundi bat	Jabi
Futbolaria	Badakizue, ezta?	Xabi
Rugbylaria	Argi ez al dago, ala?	libre dago
Hockey (patinetan)	Egurrezko ala kartoizko stick erraldoia, patinak eta lotsa gutxi (gora Martini!)	Pako
Hockey (patinetan)	Egurrezko ala kartoizko stick erraldoia, patinak eta lotsa gutxi (gora Martini!)	Aitor G.
Hockey (patinetan)	Egurrezko ala kartoizko stick erraldoia, patinak eta lotsa gutxi (gora Martini!)	libre dago
Saskibaloilaria	Uniformea, hankapaluak eta beltzez margoztuta	libre dago
Saskibaloilaria	Uniformea, hankapaluak eta beltzez margoztuta	libre dago
Saskibaloilaria	Uniformea, hankapaluak eta beltzez margoztuta	libre dago
Saskibaloilaria	Uniformea, hankapaluak eta beltzez margoztuta	libre dago
Saskibaloilaria	Uniformea, hankapalua (ez da beltza basea delako)	libre dago
Gimnasia (aroak)	Aroak, nola ez. Uniforme txuria eta kriston goma espumako muskulua	Aitziber
Gimnasia erritmikoa	Uniformea, Zintak	Zaloe Z.
Euskal Hintxa	Izan zaren astunarekin zuk jakingo duzu	Pittu
Gure duzuna	Zer, dena esan behar dizugu, ala?	libre dago

## Mozorroak prestatzeko

*Urtarrilak 16, zapatua.*

*Goizeko 12etan, Dendarikale 9ko pisuan.*

*6:30etan zen baina EHeren manifestaldia (Iruñean) dela eta aurreratu dugu, parte hartzeko aukera edukitzeko. Portzierto, Bilbotik autobusa egongo da. Apunta zaitez Kalkun (Santutxu), Errondabiden, Kalderapekon (Alde Zabarra) edo Herrikon (Deustua).*



# Konpartsen bai euskarari

**G**araitezinak gara konpartsakideok, nahiz eta guztia aurka izan, naiz eta gurea ez den guda batean sartu (oraindik aurrera bai izan daiteke), nahiz eta Iturgaitzen hortz izerditsuak nonnahi ikusi, naiz eta denbora gutxirekin ibili....., naiz eta helioa ez aurkitu, azkenean kalejira egitea lortu genuen. Hori bai, begi gris-urdineko gure aingeru guardakoaren laguntzari esker. Konpartsan pentsatzen hasiak gara bere hegoak berritzeko opariren bat egin beharko geniola. Baina jarraitu dezagun, Kalejira hasi zen, lau fanfarriek giroa berotzen zuten eta konpartserook lanbada dantzatzen hasi ginen Gran Biatik zehar.....


Turistek argazkiak ateratzen zizkiguten "not miss, not, dis is nothing of Gugenjein museun about" azaldu zion poliglota batek atso poloniar harrituari. Horrela, dantzan, orru eta garrasien artean (gutxi batzuk hai abestu zuten, besteok esandakoa) igaro genuen gran via, Hill Streeteko abesti tristeako Renkok kaleak moztzen zituen bitartean\*. Azkenean iritsi ginen Santi Mamiñera\*

eta bi gauza ikusi genituen, alde batetik zelaia guztiz beteta zegoela eta bestetik gero agertuko zen Kirriki pailazoaren lagun minena, Juan Mari "Bombero torero"\* maitagarria hamabost bat metrotara eserita zegoela (nesken artean oihuak, zorabioak etabar...). **JAIALDIA:** Oso polita, gehien bat Amuriza, Exkixu, Natxo Piliparena\* eta Antton Latxa, telebestian agertu zen marraskiloa..... Onena Konpartsek sortu genuen giroa (eskerrik asko agertu ez ziren bi hoiei\*) eta geroago Alde Zaharrean egin genuen poteoa, naiz eta gure konpartsakoko kol-darren batek alde egin. Beraz, Mendiguren eta lagunei mila esker kanpaina horren ondo eramateagatik\*.

## \*LEHIOAKEKOEI AZALPENAK

Kalea moztu= trafikoa moztu  
Santi Mamiñe= San Mamés  
Bombero Torero = Atrucha, Juan María  
Natxo Piliparena= Nacho de Felipe  
Hoiei= Zuek eta besteren bat.  
Azkenengo esaldia ironikoa da.





- Kaixo, nor zara?
- Jon.
- Zer gehiago? Esan zerbait zutaz...
- Zerbait nitaz? Umore txurra dudala, batez ere abi-satu gabe elkarrizketak egiteko deitzen didatenean.
- Noiz sartu zinen Hau Pittu Hau-n?
- Duela pare bat aste, edo hiru, ez dakit.
- Zerik bultzatu zaitu astakeria hori egitera?
- Hori erantzuteko zaillegia da. Hau... hau oso bat beharke genuke.
- Norik konbentzitu zaitu?
- Oraindik ez nago konbentzituta.
- Luze frauteko asmón duzuri?
- Bizirik, esan nahi dut...
- Murtxarean arabera ikusiko da.
- Kalejira asko egin behar baditugu Arriagatik San Mamesera dantzari, ez dut aste luze irango dudarik.
- Bueno, ba animo asko...
- Hori da guztia? A ze erreza!

## Traidoreak ugaltzen doaz

**P**asa den Hau...Hau-n Copek zabaldutako eskusiba eskaini genizuen: Eñaut traidore bat dela eta Hor Dago!-k fitxatu duela. Oraingo honetan gure lkerketa taldeak konspirazio judu-masoia honen froga berriak lortu ditu.

Pepsi, Hor Dago! eta txarriki saltzaileak batu dira gure konpartsa txikitzeko. Gauzak horrela, Allendek bezain adoretzu burrukatuko dugula jakin dezaten. Moro eta Kolditorentzat gure mesprezua baino ez.



A.J.T. IGOR MORCILLO  
KOLDO RODRIGUEZ  
- HORDAGO -  
C/ TENDERIA - 9 - 1º - 9  
48005 - BILBAO





## mendeku txiki

**Hau...Hau erredakzioari:** Hau...Hau zaleak ale bat “deboratu” eta hurrengoaren zai egoten gara. Ezin gaituzue 3 hila-bete drogarik gabe eduki, ez da zilegia!!! Hau...Hauren irakurle konpulsiboak.

**Koldito molotov:** Lekittar “incendiario” bat zara. Pasatzen zaren edonondik sua pisturik uzten duzu. Bilboko suhiltzaileak eta Txikerra.

**Hau...Hauko zentzura batzordeari:** Adierazpen askatasuna, bestela... PIM PAM PUM!!!!. Zentzuratutako bat.

**Iurgi:** Noiz hasiko gara lizarra-Garazi akordioa martxan ja? zen?. Gogorregin hanka zabalik dituzu itxaroten. Hau Pittu Hau internautak.

**Koldoren partez:** Ni ez naiz Koldito, fale!

**Hau Pittu Hau internautak:** “Kotilla” batzuk izatea ondo dago, batzuetan, baina ahoandi astun eta ergel batzuk zaretenean ez, inoiz ez. Iurgi.

**Hau Pittu Hau “interkotilla”-k:** Goian jartzen duena suskribitzen dut. MORO.

**Moro:** Ez da “suskribitzen dut” esaten, “bat nator” baizik. Ea ikasten dugun! Purismo batzordea

**Peru:** non dekozu katua? Zoofilia komandoa.

**Zure mendekua bidali:**

- postaz: Mendekuteka. Hau Pittu Hau. Dendarikale 9, 1.goa. 48005. Bilbo.
- e-postaz: eheb@herrixka.net

## euskalduna naiz...



Gaieraren arazoirik nagusienak politikoak eta ekonomikoak izan dira. Orain, euskararen berreskurapena lortzeko neurri poli-

tikoak eta ekonomikoak hartzea nahiezkoa da. Horrek diskriminazio positiboa edota aldekoa suposatzen du.

Politika eta politikeria edota alderdikeria ez da gauza bera. Gai politikoak edota alderdi politikoen arteko liskarrak konpontzeko ondasun kultural bat ezin da trukeko txanpon gisa erabili.

Azkenengo urtetan jarrera hori espainiar nazionalisten alderdiek izan dute gehien bat: Araban eta Nafarroan adibideak ugariak dira.

## paper artean

• “Aunque no sea cierto, el euskera de las pintadas parece o es ya en sí mismo un lenguaje de guerra”.

Francisco Umbralak “El Mundo”-n.

“Egia ez izan arren” eta “berez da”.

Apur bat kontraesankorra bada Umbral jauna, ezta?

• “El euskera es una lengua difícil y poco útil”. Rosa Díezek.

Zuek ulertzea baino zailago ez da izango; bestean dagokionez, isildu egingo gara badaezpada. Ez dugu kereilarik nahi.

• “Aquí si no sabes euskera no puedes ser ni barrendero”. “El País”-eko erreportaia batean.

“Barrendero” agian ez, baina bai beste hainbat gauza: funtzionario, epaile, irakasle edo... lehendakari.